

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA

*Igeldoko
historia eta
istorioak*



Kaixo herrikide!!!

Udaberriarekin batera, herria ere esnatu egin dela esan dezakegu. Hemendik aurrera ekintza ugari izango ditugu: Ernioko mendi martxa, Udaberri Festa, ikasturte bukaerako festak, San Pedro jaiak... Talde berriak ere sortu dira; komunitate energetikoaren ingurukoa esaterako. Horrez gain,

Jubilatuak sekulako martxan dabilta hitzaldi eta ekimenekin. Herri Kontseiluari dagokionez, berritzea tokatzen da eta Herri Batzarra izango da igandean. Tokiko Entitate Txikiaren inguruko azken berriak ere azalduko dira bertan. Beraz, datozen asteetan bada zeregina!



Martxoaren 31n, plazan zeuden ume, gazte eta gurasoak Aitor agurtzera joan ziren kalejiran.

Eskerrik asko Aitor!

Apirilaren 1ean izan zen Aitor Etxeberriaren azken lan eguna IKOn. Bezperan, ostiralean, plazaren bueltan zeuden ume, gazte eta gurasoak elkartu eta kalejiran joan zitzaizkion agurtzera. Bere ibilbidean egindako lana eta izandako jarrera eskertu nahi izan zioten denek.

Kooperatibak martxoaren 19an egin zuen batzarra eta diru kontuak aztertuta, neurriak hartu behar izan dituzte egoera hobetzeko. Langileen berrantolaketarena izan da horietako bat. Bazkideak gehiago kontzientziaztea ere bai. Apirilaren 2az geroztik, Iraia Altuna ari da lanean Aitorren orde, jardunaldi murriztagoan.

Frantziako Tourra Igeldotik pasako da

Uztailaren 1etik 23ra Frantziako Tourra txirrindulari lasterketa jokatu da eta lasterketako hirugarren etapa Igeldotik pasako da. Uztailaren 3an izango da, astelehena, eta errepidea itxita egongo da hainbat orduz. Hirugarren etapa horretan Amorebieta-Etxanotik abiatuko dira txirrindulariak eta Euskal Herriko kostak zeharkatuz Baionan izango dute

helmuga. Bezperako etapa, bigarrena, Donostian bukatuko da eta Igeldoko errepidea irekita egon arren, baliteke Antigua eta inguruan eragina izatea. Informazio zehatza izatean, Herri Kontseiluak zabalduko du ohiko bideetatik.

Tourrarekin lotuta, asfaltatze lanak egin ditu Udalak Igeldoko errepide nagusian. Hainbat zati konpondu dituzte.

Igeldo-Ernio mendi martxa

Urtero bezala, Igeldo-Ernio mendi martxa antolatu da. Maiatzaren 6an izango da eta bi hitzordu jarri dituzte. Alde batetik, goizeko 05:00etan Din Din elkartean, ibilbide osoa egiteko; eta bestetik, 10:00etan Iturriotzen. Jakinarazi dute, egun horretan lasterketa bat pasako dela Erniotik eta zailtasunak egon daitezkeela Iturriotzen aparkatzeko.

Hainbat deialdi Guraso Elkartetik

Ikasturte bukaera iristen ari da eta hainbat hitzorduren berri eman dute Guraso elkartetik. Alde batetik, ekainaren 11n Eskola Txikien Festa izango dela gogorarazi dute. Lizartzan izango da oraingoan eta egun osoko festa ederraz gozatzeko aukera izango da. Herritar guztiei dei egiten diete Lizartzara gerturatzeko eta parte hartzeko.

Bestetik, ekainaren 17an Eskolako jaialdia izango da. Kasu honetan ere, egun osoko festa izango dute, ikasle, irakasle, langile eta gurasoek ikasturtea agurtzeko.

Txakur kakak Eskolan

Azken aldian txakur kaka ugari azaldu dira Eskolako eremuan eta txakur jabeek dei egiten diete kontuarekin ibiltzeko eta beraien txakurren kakak jasotzeko.

Formakuntza saioak

Datozen egunetan, bi formakuntza saio izango dituzte gurasoek. Maiatzaren 5ean, doluaren inguruan ariko dira eta maiatzaren 18an mugikorra izango da hizketagai. Seme-alabei mugikorra noiz eman, ematerakoan nola jokatu...

Udalekuak martxan

Iaz bezala, guraso talde batek Udalekuak antolatuko ditu uztailan. Izena emateko epea bukatuta dago.

«Igeldon ere komunitate energetikoa martxan dago; animatu!»

Azken urte hauetan, gizartean asko zabaltzen ari da bizitzen ari garen larrialdi klimatikoari aurre egin behar diogunaren kontzientzia. Energiaren garestitzearen ondorioz, betiko enpresa energetikoek izan dituzten izugarritzko mozkinak ikusita, zenbait sektoreetan energiaren ekoizpena maila lokaletik kudeatzen hasi behar dugunaren ideia ere indarra hartzen joan da. Honi, Europatik bideratzen ari diren dirulaguntzak ere transizio energetikoa azeleratzeko eta, komunitate energetiko herritarren bidez, energiaren kudeaketa demokratikoago bat lortzeko helburuarekin garatzen ari diren proiektu asko martxan jartzen ari direla eranstean badiogu, batzuei

bururatu zaigun galdera hauxe izan da: Igeldon ere saiakera egingo al dugu, bertako baliabideak kontuan hartuz komunitate energetiko bat sortzeko? Eta, orain arte egin ditugun bi bileren emaitza ikusita, erantzuna baietz da, merezi duela eta egingo dugula!

Dagoeneko denok garbi daukagu energiaren deskarbonizazioa lortzeko, teknologia berriak gartzeaz aparte gizartearen eta ingurumenaren aldeko ereduak bultzatu behar direla, gaur egun dugun dependentsia energetiko handia murriztu behar dugula (GFAko datuen arabera Gipuzkoako energiaren %8a bakarrik da berriztagarria!) eta herrietako komunitate energetikoak irteera bat izan dai-

tezkeela arazo horiek guztiak konpondu eta beste eredu energetiko batzuk eraikitze bidean, komunitate energetiko baten helburuak onura ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak eskaintzen dituelako komunitate osoari.

Beraz, eraginkortasun neurriak hartuz energia-faktura murrizteko, herriko gizarte-kohesio handiagoa sustatzeko eta betiko energia enpresa handietatik aparte energia berriztagarriak erabiliz klima aldaketaren aurka egiteko gogoz bazaude, oraintxe duzu aukera Igeldon bertan. Animatu eta parte hartu!

Igeldoko komunitate energetikoa sustatzeko prozesua lantzen hasi den taldea



Eguzki plakak jarri ditu Udalak Eskolan

Aste Santuan, autokontsumorako eguzki-instalazio fotovoltaikoa jarri du Donostiako Udalak Igeldoko eskolan. Energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko programaren barruan, Europako diru laguntzaren bidez egin da. Aurrekontua: 32.724,45 €. Bertatik ateratzen den energiaren kontsumoa honela banatuko da: Eskola %40, Igeldoko bonbak % 35 eta kultur etxea %25.

Azken detaileak lotzen ari dira jaietarako

San Pedro jaiak antolatzen burubelarri ari dira lanean hainbat herri-tar. Egitaraua ia osatua daukate eta detaile txiki batzuk lotzea bakarrik falta zaie.

Festa egunak ekainaren 23tik uztailaren 2ra izango dira. Hain

zuzen, egun hauetan izango dira ekintzak: ekainak 23, 24, 25, 29 eta 30, uztailak 1 eta 2. San Juan bezperarekin berotu, kross, futbol eta pelotarekin jarraitu eta San Pedro egunarekin etorriko dira egun nagusiak.

Aurtengoan ere ez dira faltako adin eta gustu guztietarako ekintzak: herri kirolak, umeen eguna, kontzertuak, DJak, Umore Horiya, antzerkia, dantza, bertsolariak... Prestatzen joan, gutxi geratzen da eta!

Herri Batzarra izango da igandean

Maiatzaren 7an Herri Batzarra deitu du Herri Kontseiluak. Goizeko 11:00etan hasiko da Itsas Aurrean.

Honako gaietaz buruz ariko dira: Herri Kontseilua berritzea, Tokiko Entitate Txikia, Plan Orokorra, Lokala,

Txalingo txaleta eta balantze ekonomikoa. Herri Kontseiluak dei egiten die herritarrei bertaratzeko.

Proposamen berria Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko

Eskumenak ez lirateke denak batera hartuko. Bi bloketan banatu dira.

Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko prozesuak tirabirak izan ditu azken hilabeteetan. Urriaren 21ean batzarra egin zen Igeldon gaia nola zegoen azalduz eta ordutik moldaketak izan dira bai prozesuan, bai aurkeztutako proposamenean ere. Batzar hartan, Siadecok prestatutako txostena aurkeztu zen eta Igeldok izan zitzakeen eskumen eta zerbitzuak azaldu ziren. Igeldotik txosten horri ekarpen batzuk egin zitzaizkiola argitu zen batzarrean, batez ere, Hirigintza eta Etxebizitza arloetan. Siadecok bigarren txosten bat prestatu behar zuen alderdi guztien ekarpenak kontuan hartuta.

Irailetik Herri Kontseilua eta TET batzordea Udalaren zain egon dira eta urtarrilaren 25ean proposamen berri bat jaso zuten. Siadecoren ibilbidea ere bukatutzat eman zuen Udalak, kontratua bukatu zitzaioala argudiatuz. Prozedurarekin desadostasunak izan arren, TET batzordeak aurrera jarraitu du lanean.

Proposamen berria

Urtarrileko bileran Udalak jakinarazi zuen hiru teknikari jarri zituztela gai honekin lanean. Bilera hartan, planteamendu berri bat egin zuten teknikariek TET sortzea ez gehiegi atzeratzeko helburuz: eskumenak gehiegi zehaztu gabe sortzea. Horrek ze eragin izango zuen ez zuen argi ikusten TET batzordeak, Siadecok prestatutako txostena non geratzen

zen ere ez, eta zalantzak argituz, Udaleko idazkariak txosten bat prestatu zuen otsaila bukaeran.

Txosten horrek oinarrian, Siadecoren planteamendua hartzen du, baina aldaketa batzuekin. Eskumenak ez lirateke denak batera hartuko. Bi bloketan banatzen dira: alde batetik, TET eratu eta berehala eskuratzekoak (A blokea); bestetik, azterketa bat egin ondoren transferitzekoak (B blokea).

Horrez gain, Siadecoren txostenean biltzen zen bezala 5 langile propio eta Udaleko idazkari/kontuhartzailea (%33) izan beharrean, 3 langile proposatzen dira orain. Bestalde, langile, funtzionamendu eta erabakien aurrean, Udaletik eskuhartze gehiago planteatzen da. B blokeko eskumenak ere ez dira nahiko Igeldotik eskatu denari erantzuteko eta horien transferentzia ziurtatzea falta dela ikusten du TET batzordeak. Txosten horri ekarpenak egin dizkio TET batzordeak, B bloke hori nola formulatu behar den ere bai, eta Udalaren erantzunaren zain dago orain.

Eskumenak, langileak eta aurrekontua

Eskumenei dagokienean, honela biltzen dira txostenean:

A blokea (zuzenean eskuratzekoak): Bide publikoak; Parkeak eta lorategiak; Kale garbiketa; Argiteria publikoa; Hezkuntza arloa;

Eraikin publikoak; Adinekoen sustapena; Kultur jarduerak eta jaiak; Euskara sustatzea; Kirol jarduerak eta ekipamenduak; Parte-hartzea, berdintasuna, gazteria, aisia eta hezkuntza ez arautua; eta Administrazio orokorra.

B blokea (azterketak egin ondoren transferitzekoak): Hirigintza; Etxebizitza; Gizarte zerbitzuak; Ingurumen zerbitzuak; Turismoa eta garapen ekonomikoa; Hondakinak bildu eta tratatzeko kudeaketa; eta Hilerriz zerbitzua.

Langileen planteamendua, berriz, honakoa da: Administrazio Orokorreko Teknikaria (Donostiako Udalak jarria); Hirigintza eta mantenimendu teknikaria; eta teknikari soziokomunitarioa. Horrez gain, Gizarte Langile bat bideratuko luke Udalak Igeldora %20ko dedikazioarekin.

Aurrekontua Siadecoren txostenean 1.255.000 € inguru zen. Orain hori dena egokitu egin behar dutela azaldu dute Udaletik, eskumenak eta langileak kontuan hartuta, besteak beste. Zenbait arlotan inbertsioetarako diru gehiago eskatu da Igeldotik. Horrez gain, aparteko inbertsioak ere eskatu dira: Eskola zaharra, Itsas Aurre egokitzea, komunak eta aldagelak, kantxa estaltzea...

Egoitza jartzeko lekua

Tokiko Entitate Txikia sortzean, egoitza bat beharko da. Eskola

Zaharrearantz izatea aukeretakoa bat da, baina hori konpondu eta egokitzeke denbora asko beharko denez, beste aukera batzuk aztertu beharra ikusten da hasiera baterako behintzat. Hori ere aztertzen dabilta TET batzordeko kideak.

Hurrengo pausoak

Oraindik ez dago ezer zehaztua, baina proposatutako pausoak honakoak lirateke: maiatzaren bukaeran, adostutako txostena Donostia-ko Udaleko Gobernu Batzordetik pasa eta onarpena eman.

Ondoren, hauteskundeak ondorengo Udalbatza batean onartu. Eta horren atzetik: erakusketa publikoan jarri eta alegazioak aurkezteko epea zabaldu; behin betiko txostena onartu; Igeldon galdeketa egin; Foru Aldundiak erabakia hartu.



Jakoba Errekondok hitzaldia eman zuen martxoaren 29an landareen bizimoduari buruz.

Izen eta logo berria daukate Jubilatuek

Aurreko Orri Informatiboan azaldu zuten bezala, Elkarteko Batzar Nagusia martxoaren 11n egin zuten eta bertan hartutako erabakien berri eman dute. Lehendik jarritako Elkartearen izena "Igeldoko Biltokia" aldatu eta "Igeldoko Jubilatuek" izen berria jartzea erabaki zuten. Aldi berean, Elkartearantzako logo berria ere aukeratu dute; kolore berdekoa da. Horrez gain, orain arte egiten diren ekintzekin jarraitzea erabaki dute: ikastaroak, eskursioak, hitzaldiak, ibilaldiak, kantujirak, eta abar.

Bestalde, aktibitateak egiteko lokal edo areto beharra aldarrikatzea garrantzitsutzat ikusten dute, eskola zaharreko proiektua bultzatuz eta eliz atzeko lokalaren erabilerara antolatuz.

Eskursioa Biasterira

Maiatzaren 17an Laguardia-Biaste-

rira eskursioa egingo dute. Igeldoko aparkalekutik goizeko 8:30tan irten-go da autobusa. Bide-an, Gazteiz inguruan geldialdia gosaltzeko eta Biasterira iristean bi aukera egongo dira. Nahi dutenek Eguren-Ugarte bodegetara bisita eta ardo dastatzea (15 €). Beste aukera, Biasteri herria ikustea izango da (harresiak, elizak, kalek, eta abar). Bazkaria, La Huerta Vieja jatetxean egingo da. Arratsaldean, Labraza herri polita ikusteko aukera egongo da. Pertsonako prezioa 40 € da.

Hiru hitzaldi ere bai

Martxoaren 29an, Landareen Bizimoduari buruzko hitzaldia eman zuen Jakoba Errekondok. 20 pertsonak hartu zuten parte eta galdera-erantzunak interesgarriak izan zirela azaldu dute.

Apirilaren 26an berriz, Testa-

mentu eta Herentziak legearen aldaketei buruzko hitzaldia eman zuen Gorka Orokieta abokatuak.

Hirugarren hitzaldi bat ere izango da maiatzaren 3an. Janari etiketen irakurketari buruzko hitzaldia eman-go du Arantza López-Ocaña sendagile nutrizionistak. Arratsaldeko 17:00tan izango da Din Din elkarte-an. Ondoren, 19:00tan, Javi Penas sukaldariak Errezeta Osasungarrien praktikak irakatsiko ditu.



**IGELDOKO
JUBILATUAK**



Jabier Iraola Gabilondo liburuaren inguruko azalpenak ematen.

JABIER IRAOLA GABILONDO - IGELDOKO HISTORIA ETA ISTORIOAK LIBURUA:

«Altxor bat egitea lortu dugu»

Igeldoko historia eta istorioak biltzen dituen argazki liburua osatu du Jabier Iraola Gabilondok hainbat herritarren laguntzarekin. Bertan bildu dituzte orain dela 50 urte arteko baserri eta familien bizipen eta argazkiak. Nondik gatozen ezagutzeko igeldoar guztiok etxean eduki beharreko liburua, dudarik gabe. Urtetako lanak udan ikusiko du argia. Edizio bakarrekoa izango da eta maiatzaren 16ra arte erdi prezioan eskuratzeko aukera dago.

Azkenean, udaran argitaratuko da liburua. Ze sentitzen duzu?

Poz handia noski, baina tristura puntua ere sortzen dit egia esan. Hainbeste ordu pasa ditut honekin, egunero... orain pentsatzen dut, eta bukatzean, zer? Hori dena bukatuko da eta pena pixka bat ere ematen dit. Baina aldi berean, sekulako lasaitua hartuko dut. Oso neketsua izan da. Etxekoek ere eskertuko dute.

Hainbeste buruhauste eta gero, sinesten zenuen aterako zela liburua?

Zerbait aterako genuela bai, baina ez horrelakoa.

Krixton altxorra egitea lortu dugu. Baserri bakoitzaren, bertako familia bakoitzaren konposaketa eta bizimoduaren inguruko informazioa biltzea lortu dugu. Familian bertan ezezaguna zena ezagutzeko balio izan du. Denok ezagutu beharreko istorioak azaltzen dira... sekulako balioa du.

Jendeak orokorrean liburu honen berri orain dela 2-3 urte jakin du, baina proiektua lehenagokoa da. Nolatan bururatu zitzaizun?

Esango nuke orain dela 5 urte inguru hasi ginela proiektu honekin. Baina aurretik lan bat ere egina

zegoen. Auzolan garaian, adibidez, baserrien argazki batzuk biltzen ibili ginen eta ordukoak baneuzkan album batean. Gerora, Auzolan desagertu eta Herri Kontseilu garaian, baserrien argazki erakusketa bat antolatzeke ekimena sortu zen eta argazkiak biltzen aritu ginen. Hor konturatu nintzen baserriak galtzen ari zirela eta ez zegoela horiek biltzen zituen ezer. Orduan hasi nintzen baserrien argazkiak biltzen, eskaneatzen eta jasotzen.

Baserrien argazkiak biltzea zen asmoa orduan?

Bai, horrela hasi nintzen, baina jendeak baserriez gain, beste argazki zahar batzuk ere pasatzen zizkidan eta azkenean erabaki nuen baserriko argazki guztiak bilduko nituela. Konturatu nintzen krixton materiala neukala eta laguntza eskatu nuen. Horrela, proiektua aurrera eraman duen taldea sortu zen pixkanaka. Argi utzi nahi dut lan kolektiboa izan dela.

Eta pixkanaka, beste aldaketa bat: argazki liburuari testua sartzea.

Hasieran argi nuen argazki liburu bat izango zela, baina jendea hasi zitzaidan esanez baserri bakoitzaren historia kontatu behar nuela eta berotu egin nintzen!

Jabier Iraola Gabilondoren liburua deitzen diogu denok, baina lan kolektiboa izan dela aipatzen duzu.

Dudarik gabe. Alde batetik, taldea egon da: Iker Zinkunegi Arrillaga, Alex Aisa Alberdi, Larraitx Dorronsoro Aierbe, Karmele Garmendia San Sebastian, Iñaki Enbil Lobera eta Ainhoa Uranga Uzkudun. Bakoitzak bere mailan egin du lan. Eta gero David Gil de Montes Etxaide aritu da diseinuan eta Iñaki Iturain Azpiroz idatziari forma ematen eta zuzentzen.

Horrez gain, hainbat idatzi egiteko ere laguntza izan dugu. Antton Dorronsoro Gaztañaga, Xabi Iraola Larraia, Jose Jabier Alberdi Irizar eta Aratz Urruzmendi Lizeaga aritu dira.

Eta ezin da ahaztu argazkiak eta informazioa eman didan jende guztia. Beraiek gabe ezingo genuen liburu hau egin. Aipatzekoa da informazio

iturri oso onak izan direla Jose Mari Kruz Martikorena eta Anjela Alberdi Arrillaga. Informazio asko eman digute Igeldori buruz.

Argazkiak, berriz, herritarrek eman dizkigute gehienak, baina nik ateratako batzuk badira eta Kutxatekatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik lortutakoak ere bai.

“Ezin da ahaztu argazkiak eta informazioa eman didan jende guztia. Beraiek gabe ezingo genuen liburu hau egin”

LIBURUA ERDI PREZIOAN

Maiatzaren 16ra bitarte
Herri Kontseiluarekin
harremanetan jartzen
denak erdi prezioan
eskuratuko du
liburua (20€).

herrikontseilua@igeldo.eus
606311734

Herritarren erantzuna ona izan da orduan?

Oso ona. Etxe bakoitzak eman duen argazki kopuruaren media 12 argazkikoa da. Jendea prest azaldu da argazkiak uzteko eta informazioa emateko. Eta ez bakarrik gaur egun Igeldon bizi direnak. Kanpora bizitzera joandako familia askorekin egon naiz baita ere. Askok lagundu dute.

Argazkiak, eta testua dagoela esan dugu... zer da zehazki aurkituko duguna?

Igeldoko historia eta istorioak; 120 baserri edo etxetakoak. Hasieran, Igeldoren historia; noiz eta nola sortu zen. Gero, baserriak. Baserritzat hartu dugu orain dela 50 ute arte baserri bizitza izan duena, gutxi gorabehera. Azaltzen diren guztietan hazienda izan zuten. Eta %90ak astoa; etxeko kotxea zen. Mugatik kanpo geratzen diren baserri batzuk ere sartu ditugu Igeldorekin lotura izan dutelako. Eta gaur egun desagertuta daudenak ere azaltzen dira. Baserri hauek izan dira guk jakin ditugunak, agian baserriren bat falta da guk ez daki-


guna. Eta informazioarekin berdin. Kontatu digutena jarri dugu, agian zerbait ez da zuzena izango.

Bestalde, baserri ez diren etxe edo eraikin batzuk ere azaltzen dira Igeldon izan duten pisu edo eraginagatik: Monte Igeldo (nahiz eta mugaz kanpo egon), Gudamendi eta Akelarre.

Horrez gain atal hauek ere badaude: arrokak, eliza eta elizkizunak, eskola, gerra eta soldaduska, harrobiak, iturriak, jaigiroa, kirolak, lana eta bizimodua, ondarea, plaza...

Bildutako argazkiak 1880 urte inguruan hasi eta orain dela 50 urte artekoak dira. Dokumentu bat ere badago 1830ekoa dena.

“ Liburu hau ez da berriz argitaratuko, edizio bakarrekoa izango da. Beraz, animatu dadila jendea. ”



EZAUGARRIAK

Igeldoko historia eta istorioak biltzen dituen liburua.

552 orrialde

1.000 argazki baino gehiago

Gaiak: baserri eta etxeak, astoak eta igeldoarrak, arrokak, eliza eta elizkizunak, eskola, gerra eta soldaduska, Gudamendi, harrobiak, iturriak, jaiak eta jaigiroa, kirolak, lana eta bizimodua, ondarea, plaza.

552 orri ditu liburuak, baina ez ziren argazki guztiak kabituko...

Erdiak baino gehiago gelditu dira kanpoan! 1.000 argazki inguru ditu liburuak eta beste 1.500 geratu dira argitaratu gabe. Horren pena daukat. Jendeak argazki asko eman dizkit eta oso gutxi argitaratu dira. Agian batzuk triste jarriko dira bere familiako argazki gutxi doazelako. Eta bada pertsona edo gai jakin baten inguruko argazkiak lortu gabe geratu naizena ere. Pena ematen dit.

Argazki horiei bide emateko asmorik bai?

Gustatuko litzaidake zerbait egitea horiekin, baina ikusiko dugu nola eta noiz.

Laguntza ekonomikorik izan duzue?

Herri Kontseiluak eta Jubilatuen elkarteak hasieratik

lagundu dute proiektu hau aurrera eramaten. Eta aparte, Donostia Kulturaren laguntza izan dugu. 15.000 euro bideratu ditu proiektura. Laguntza handia izan da liburua argitaratu ahal izateko.

Udaran argitaratuko da liburua. Datarik ba al dago?

Aurkezpena San Juanetako astean izango da. Ekainak 19ko astean. Donostian eta Igeldon aurkezpen bana egingo dira. Behin aurkezpena eginda liburudendentan salgai egongo da. Elkarren bidez argitaratu eta zabalduko dugu liburua.

Horren aurretik, liburua erreserbatzeko aukera jarri duzue eta erdi prezioan eskuratuko litzateke. Zergatik?

Esan bezala, liburu hau lan kolektibo bat da. Herritarrak ere badira modu batean liburua-
ren egileak eta laguntza hori eskertu nahi izan dugu. Modu egokia iruditu zaigu.

Zer moduz doa? Ze kopurutara iritsi nahiko zenuke?

Momentuz ondo doa, baina gustatuko litzaidake 300 ale erreserbatzera iristea. Beraz, animatu dadila jendea! Kontuan izan dezatela ez dela liburu hau berriz argitaratuko inoiz. Elkarren argi esan digute; edizio bakarrekoa izango da.



Erreketek, Mendizorrotzera zihoazela, geldialdia egin zuten Igeldoko plazan Italiatik jasotako tanke txiki berria erakusteko. Erabat oilartuta zeharkatu zuten herria, harroputz. Gerra zibilaren lehenengo urtea zen.

Antzerkiak egiten ari dira Eskolan, hainbat gai landuz

Aste Santuaren ondoren, apirilaren 17an bueltatu ziren Eskolara ikasle eta irakasleak azken hiruhilekoari ekitera.

Azaldu dutenez, nahiz eta tarte motza izan, lan pila egiten jarraituko dute eta gela gehienetan, ipuinak, unibertsoa, historia landuz antzerkiak egingo dituzte.

Tolosan kirol topaketa eta Ereñotzura bisita

Aurreko hiruhileko bukaeran, eskolako 2. eta 3. ziklokoak Tolosan egon ziren Gipuzkoako eskola txiki-txikiak guztiekin kirol topaketa batean. Primeran pasa zuten eta beste eskola txiki-txikiak ere jolasten aritzeko aukera izan zuten.

Bazkaltzera, Zubieta, Ereñotzu eta Agiñakoeekin joan ziren inguruko parke batera eta bertan Ereñotzukoekin oso ondo moldatu zirela azaldu dute. Hori horrela, apirilaren 26an Ereñotzura joan ziren beraiekin egun pasa egitera. «Ea hurrengo batean eurak Igeldora datozen!!!».

Baratzean lanean

Eskolako txikienek lanean jarraitzen dute baratzean eta orain letxugak aldatu dituzte. "Txitoe" kogolloak jarri dituzte, "Astoe" letxuga gorriak eta "Barraskiloe" letxuga berdeak. Sarea ere jarri dute letxugak babesteko.



MARTXOAK 8

Ekintza ugari egin zituzten herriko emakumeek

Martxoaren 8aren bueltan, herriko emakumeek hainbat ekintza antolatu zituzten. Bezperan, herria apaindu zuten eta Martxoaren 8an Donostiako manifestaziora joan ziren elkarrekin. 20 emakume inguru elkartu ziren. Asteburuari begira, ibilaldia eta korto emanaldia antolatu zituzten. Harria eta emakumeak gaitzat hartuta egin zuten ibilaldia herrian zehar. Harrobiak, gobara, iturriak... Gai desberdinez hitz egin eta herriko historiaz gehiago jakiteko aukera izan zen. Ondoren, Ahotsak ekimenetik hartuta, Igeldoko hainbat testigantza jarri zituzten entzungai Itsas Aurren



eta Maite Larburu eta Axpiren "Arrailak" ikusentzunezkoa ere bai. Afari-meriendak lagunduta, tertulia ederrean aritu ziren. Borobiltzeko, urteroko afaria egin zuten Calongen. 50 emakume inguru elkartu ziren eta primeran afaltzeaz gain, giro paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten.



MUS TXAPELKETAK



Iñaki eta Enekok eraman dituzte lapak

Martxoan zehar Lapa Txapelketa jokatu zen eta hiru saioen ostean, Iñaki eta Eneko izan ziren txapelak. Azpitxapelak Paul eta Alberto izan ziren. Txapelketa osoa kontuan hartuta, 23 bikotek hartu zuten parte.

Aurretik, Mus Txapelketa azkarrak ere jokatu ziren otsaila eta martxoko ostiraletan.

PARKETARRAK

Euskaraz jolasteko bultzada

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak Parketarrak izeneko programa eskaini zuen Igeldon. 6-9 urte bitarteko hurrek hiru saio jaso zituzten martxoan eta gus-tora hartu zituzten egindako jolasak. Programa honen helburua da parke eta jolasleketan euskaraz jolaste-ko ohitura indartzea.

Programa hau martxoan, maiatzean eta urrian egiten da eta 3-5 urte bitarteko hurrei eta gurasoei eskainita-ko jolasak ere izaten dira. Aurrerago txikienei zuzendu-tako saioak eskaintzeko aukera aztertzen ari dira.



BERTIZARANERA IRTEERA



Asteburu osoa, abenturaz betea

Gabon eskean ateratako umeekin asteburu pasako irteera antolatu zuen guraso talde batek apirilaren 29tik 30era. Bertizaranera joan ziren eta abenturaz betetako asteburua pasa zuten. Hasteko, Lehen Hezkuntzakoek Bertiz abentura parkean ibiltzeko aukera izan zuten altuerako soka zirkuitoetan. DBH eta Batxilergoek, Baztango abentura parkeko tirolinak ezagutu zituzten lehenengo egunean, eta bigarrenegoa, Bertizko zirkuituak.

Legasako Kattalin aterpetxean hartu zuten denek ostatu eta bertan Gaubela egiteko ere aprobeztatu zuten.

Igandean, egun pasa joateko aukera izan zuten Haur Hezkuntzakoek familiekin eta horiek mendi bueltatxo bat emateko plana egin zuten Lehen Hezkuntzakoekin batera. Asteburuari eta abenturari bukaera emateko, altxorraren bila egin zuten denek batera.





Puntako pelota jaialdia izango da maiatzaren 12an, Xala-Aranguren VS Urmeneta-Pascual.

Gozatu Udaberri Festan!

Laster izango dira San Isidro eguna eta Udaberri Festa, eta ohi bezala, egitarau ederra antolatu da festarekin gozatzeko.

Maiatzaren 12an, ostiralean, punta-puntako Pelota Jaialdia eta barrikotea antolatu dira. Jaialdian, Xala-Aranguren eta Urmeneta-Pascual ariko dira lehian. Profesional mailan aritutako bi pelotari ariko dira, beraz.

Maiatzaren 13an, larunbatean,

ume eta gaztetxoentzako bizikleta saioa izango da arratsaldeko 17:00etan. Ondoren, 19:00etan, poltsikoko antzerkiaren txanda izango da Itsas Aurren. "Kris eta Krash ile-apaindegia" antzezlanak izango da ikusgai.

Maiatzaren 14an, igandean, lore eta landare azoka egitekotan dira antolatzaileak, baina Orri Informatiboa argitaratzerako ez zuten zehazturik.

Azkenik, maiatzaren 15ean, San Isidro egunean, toka eta txapel jaurtiketa saioak izango dira arratsaldean plazan eta ondoren afaria Txapelan.

Txartelak Txapelan eta Ikon

Pelota Jaialdirako eta Barrikoterako txartelak Txapelan eta Ikon egongo dira salgai. San Isidro eguneko afarirako izena eman beharko da aurrez.

OHARRA

Iritzi-artikuluak argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak uztailean eta urrian izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldo plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

